

Trikitariek komunikabideetan esandakoei heldu aurretik, sarean zabaldu den idatzi bat ekarri dugu atal honetara. Gaitasuna baieztatzen duten agirien (edo habilitazioen) gaiarekin kezkatuta, **trikitixa irakasle talde baten ekimenez**, honoko testua zabaldu da sarean:

*Testu hau sinatu dugun trikitilariok, honako arazo hau salatu eta dagokion sailari seriotasunez joka dezala eskatu nahi diogu. Gaur egun musika eskola askotako irakasleak trikitixa eta panderoko habilitazioak lortzen ari dira. Irakasle hauek askok, ez dituzte instrumentu hauek kontrolatzen edota maila oso oinarrikoa daukate. Aldiz, trikitilari profesional askok arazoak dituzte egokitzapen hauek lortzeko. Egoera honekin ahal bezain azkar amaitzea eskatzen dugu.*

Kezka horrekin bat eginez gero, honoko helbide honetan sinatuz eman daiteke atxikimendua: [trikitixatrikitixa@yahoo.es](mailto:trikitixatrikitixa@yahoo.es)

**Aritz Alustizak**, EMON taldeko soinu joleak, Konfeti Kolore diskoaz prentsan esanak:

“Edozein talderentzat bezala bigarren diskoa erronka handia da. Taldea berrantolatu egin nahi genuen... eta lana mimatu egin dugu, aurrenekoa ez bezala. Ez da oso erraza diskoa definitzen, erritmo latindarrak, runba, reggae... estilo aldetik oso anitza da. Berez diskoa prest zegoen iazko udaberrirako, baina ezin izan genuen atera. Hala ere, positiboa izan da taldearentzat, udazkenean beste hiru kanta grabatzeko aukera izan dugulako. Kolaborazioetan, bai lortu dugula, oso gustuko dugun La Pegatina taldea estudioara sartzea”.

## ESNE BELTZAK MARTXOAN EMANGO DITU AURTENGO AZKEN KONTZERTUAK

Xabi Solano soinu jolearen taldeak hil honetan bertan eskainiko ditu 2013ko azken emanaldiak. Taula gaineko lanean atseden hartuko dute, kantu berriak sortu eta udazken aldera estudioan sartzeko. Hauek dira Esne Beltzaren aurtengo azken kontzertuen datak: Martxoaren 15ean Olatzagutiako Gaztetxean, 22an Arrasateko Gaztetxean eta 24an Baionan, Korrikaren amaiera festan, Esne Beltzak egin baitu 18. Korrikarako kantua.

Bien bitartean, Xabi Solano Fermin Muguruza Kontraxarekin arituko da zuzenean, “No More Tour 2013” biran. Martxoaren 21ean hasiko dute kontzertu-sorta Kurdistanen.

## TRIKIDANTZEK EGIN DU BAZTANDARREN BILTZARRAREN 50. URTEURRENEKO KANTUA

Mende erdi beteko da aurten, Baztango hamabost herrien egun handia ospatzen hasi zenetik. 50. Baztandarren Biltzarrerako, urte osoko egitaraua prestatu dute eta urteurren borobilak hala merezi duelako, lema eta irudia berritzearekin batera, kantu berria ere propio sortu dute. Trikitidantz taldeak jarri die musika Fernando Anbustegiren hitzei. Uztailaren 21an ospatuko da Elizondon Baztandarren Biltzarraren besta.



[www.trikitixa.net](http://www.trikitixa.net) · [www.trikimailua.com](http://www.trikimailua.com)

## Badator San Joseetako Trikiti Jaialdia

San Jose egunaren bueltan ospatzen den jaialdia gain-gaiean dugu. Aurten martxoaren 16an ospatuko da Azpeitiko Soreasu Antzokian. Bigarren urtez, beraz, pilotalekua atzean utzi eta kulturgunean izango da hitzordua. Jotzaileen kartelari begiratuta, belaunaldi eta estilo anitzeko trikitilariak ageri dira eta, izen bat nabarmentzekotan, Kepa Junkerarena azpimarra liteke. Aspaldian bestelako proiektuetan murgilduta ibili bada ere, Errekaldeko trikitilaria San Jose jaialdian entzuteko aukera izango da. Garai batean bezala, soinu eta pandero hutsean joko dute Kepa Junkerak eta Jose Maria Santiago *Motrikuk*.

Bikoteka zein talde txikitari, honoko zazpiek hartuko dute parte:

- Elustondo anai-arrebak
- Irati Gutierrez eta Amets Ormaetxea
- Gari eta Iñaki
- Jaione eta Ion
- Aizpurutxo, Galdos eta Ainara
- Eneko Dorronsoro eta Andoni Ezkerra
- Kepa Junkera eta Motriku

## AURTEN EZ DA OMENALDIRIK IZANGO JAIALDIAN

Urte askoan omenaldiari lotuta joan izan da Azpeitian ospatzen den jaialdi hau. Iaz ere, hiru pandero jole omentzeko probestu zuten hitzordua; Zabale, Berastegi eta Izer, hain zuzen ere. Aurten ez da, ordea, halakorik izango. “Urtero omenaldia egiteak, irudi lezake, konpromisoz egindakoa dela. Eta ez dugu halakorik nahi inondik ere. Batzuetan argi ikusten dugu norbait omentzeko ideia... baina ez derrigor egin beharreko zerbait bezala”. Hala azaldu dio Alzaporruri antolakuntza taldeko losu Arrizabalaga *Izer*-ek.



## SARRERAK EROSTEKO TELEFONOAK ERE PREST

“Sarrerak aurrez erosteko Azkoitia edo Azpeitira gerturatu beharra, batzuen kalteko” izan zitekeela eta, telefono zenbakiak prestatu dituzte eskaerak jasotzeko. “Horietara deitzen duenak, izena eman eta zenbat sarrera nahi dituen zehaztu beharko du. Sarrerak jaialdi egunean bertan jaso beharko dituzte: 16:00etatik aurrera eta beranduenera, ordu bete lehenago. Arratsaldeko 16:30tan sarrera jasotzera pasa ez denak, galdu egingo du.” Telefonoz eskaeratuagatik ere, garai bila pasatzen ez denaren sarrerak, beraz, salgai jarriko dira Soreasu Antzokiko leihatilan bertan.

Sarrerak aurrez eskatzeko, honoko telefono zenbakietara deitu beharko duzue: 943 83 28 28 / 669 363 492 / 657 794 217. Sarrerak erreserbatzeko e-posta: [trikitixa@trikitixa.net](mailto:trikitixa@trikitixa.net)

Edozein modutan, betiko tabernatan ere izango da sarrerak aurrez erosteko aukera. Azpeitiko Mendizabal, Pastorkua eta Ametsa tabernatan, eta Azkoitiko Ixidron. Bestela, jakina, jaialdia hasi aurretik Soreasun jarriko dira sarrerak salgai, arratsaldeko 16:00tan.

**NOIZ: martxoak 16, larunbata, 17:30tan**  
**NON: Azpeitiko Soreasu Kulturgunean**

Euskal Telebistan eta Erlo Telebistan izango da San Jose Jaialdia ikusteko aukera.

## 2013ko EGITASMOAK ONARTU ETA ZUZENDARITZA BERRITU DU ELKARTEAK URTEROKO BATZAR NAGUSIAN

Martxoaren 2an, larunbatez, Adunan bildutako Batzar Nagusiak iazko balantzea egin eta aurtengo egitasmoak onartu ditu. Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen lan ildoetan banatuta, hona hemen, Batzar Nagusian landutakoak.



### DOKUMENTAZIOA

• Dokumentazio zentroa aberastu eta osatzen jarraitzen du Elkarteak, trikitixarekin lotutako oro gordez.

- 2012an **Maltzeta, soinu bete bihotz** liburua idatzi du Juan Luis Zabalak. Soinuaren Liburutegiko 9. alea izan da eta aurkezpen bana egin da, Zumarragako Agiñan eta Durangoko Azokan.
- 2013an, liburua idatzi ordez, **Hauspo kontari** egitasmoaren bigarren txanda burutuko da. Trikitilari eta pandero jole edadetuei elkarrizketak egin eta bideoan grabatuko dira.

### TRANSMISIOA ETA IRAKASKUNTZA



- **TRIKITIXA EGUNA.** 2012an, urriaren 27an, Bergaran ospatu zen Euskal Herriko Trikitixa Eguna. Kalejira, emanaldia, bazkaria eta erromeria izan ziren. **2013an ez da egingo**, aurrerantzean **bi urtetik behin** ospatzea erabaki baitu irakaskuntza taldeak. Hortaz 2014an izango da hurrengo Trikitixa Eguna.
- **INPERNUKO POZA JARDUNALDIAK.** 2012an **irakaskuntzaren ingurukoak** jorratu ziren mahai-inguru eta

hitzaldi musikatu banarekin. 2013ko **gaia zehazteke** dagoen arren, Jardunaldiak Donostian izango dira irailaren aurreneko astean.

- **OINARRI MUSIKALAK.** Iaz bezala, soinuarekin batera jo ahal izateko sei piezaren oinarriak egingo ditu aurten ere Iban Gurrutzagak. Honoko piezak erabaki dira: **Lesaka bidean, Ama nik neska, Saltoka, Lantzeko ihauteriak, Larrosa eta Frantses euskalduna.** Oinarri hauek ere [www.trikimailua.com](http://www.trikimailua.com) webgunean jarriko dira.
- **MOLDAKETAK BI AHOTSETARA.** Joseba Tapiaren eginbera izango da, iaz bezala, piezak moldatzea. Hauek ere [www.trikimailua.com-en](http://www.trikimailua.com-en) zintzilikatuko dira.

### HEDAKETA, KOMUNIKAZIOA ETA ZERBITZUAK

- **SAN JOSE JAIALDIA.** Martxoaren 16an ospatuko da aurtengoa. Xehetasunak, aurreneko orrialdean.
- **FABOREZ.** Pieza zaharren disko bilduman, honoko trikitilariak hartuko dute aurten parte: **Jauregi, Barrenola, Mamen Maltzeta eta Zabale.**
- **GEURE KOLKOTIK.** Laugarren alea izango du aurten pieza berrien disko honek. **Alaitz Telletxea, Imuntzo, Saioa Lizarralde, Ander Malbadi eta Iñaki Zabaletaren** hiruna piezek osatuko dute lana.
- **AURKEZPEN ERROMERIAK.** 2012an Donostian eta Zarautzen aurkeztu zen Geure Kolkotik diskoa. 2013an ere badago aurkezpen erromeriak egiteko asmoa, tokia zehaztu gabe dagoen arren.

Aipatutako egitasmoen gain, Elkarteak webgunean eta Altzaporruren bitartez jarraituko du bere berri ematen, eta jakina, bere zerbitzua eskaintzen jarraituko du trikitilari eta gainerakoiei.

### ZUZENDARITZA BERRIA

**Lehendakaria:** Agurtzane Elustondo

**Lehendakariordea:** Iosu Arrizabalaga Izer

**Idazkariak:** Eneritz Gorrotxategi eta Maider Jauregi

**Diruzaina:** Juanjo Manterola

**Bokalak:** Aritz Alustiza, Andoitz Antzizar, Joseba Tapia eta Eneko Dorronsoro

## INAZIO ETXEBERRIA BASTIDA “ETXEBERRITXO” HIL DA



Joan den urtarilaren 24an zendu zen Inazio Bastida Uranga *Etxeberritxo* pandero jotzailea. Azpeitiko Oñatz auzoko Etxeberritxo baserrian jaioa, bere kasa ikasi zuen panderoa astintzen eta gazterik hasi zen plazetan jotzen. Hainbat soinu jolerekin aritu bazen ere, Joakin Errasti *Epelarre* izan zuen trikiti lagun urte askoan. *Epelarre*-rekin batera, Euskadiko Trikitixa Txapelketako finalaurrekora iritsi zen 1979an. Harekin ez ezik, Astiasaran anaiekin ere maiz aritu zen. Eta azken urteotan, Xabi Solanorekin batera, Esne Beltzaren hainbat emanalditan hartu zuen parte. 70 urte zituela joan da, panderoa eskutan hartu orduko, bizi-poza zabaltzen zuen gizona. Trikitilari mordoxka bildu zen hiletan azken agurra ematera.

Esne Beltza taldekoek “Malko bakoitzeko” izeneko kantua eskaini diote Etxeberritxori. Taldearen web orrialdean duzue ikusgai kantuarekin osatutako bideoa.



## Xabi Aburruzaga: Neure

Aurki izango da kalean Xabi Aburruzagaren hirugarren diskoa: “Neure”. Soinu jole bizkaitarrak Altzaporruri azaldu dionez, “data zehaztea erraza ez den arren, gauzak ongi, maitzerako” izango da entzungai. Izenburuz galdetuta, “maitasunez betetako hitza dela” dio Aburruzagak eta “lana ezin hobeki definitzen” duena.

14 piezaz osatutako lanean, 9 instrumentalak izango dira eta, gainerakoak, abestuak. “Diskoa, jakina, folk estiloan kokatuko nukeen arren, keinu batzuk ere egiten dizkiogu beste estilo batzuei. Aurreko bi lanetan bezala, tradizioa eta modernitatea uztartu ditut, nire estiloa gauzatzeke”. Uztartze horren bi adibide ere aurreratu dizkigu Aburruzagak: “Fandanblues izeneko pieza bat konposatu dut... edota “hamabi” izenez bataiatu dudana porrusalda moderno bat”.

Lana “borobiltzeko” musikari kolaboratzaileak izango ditu ondoan eta letren egileei erreparatuta, izen handiko idazleak ageri dira: Unai Elorriaga, Kirmen Uribe eta Iñaki Aurrekoetxea. Mikel F. Krutzaga aritu da teknikari lanetan.



### Korrontzi: tradition 2.1.

“Tradition 2.1” izeneko egitasmoa lantzen ari da Korrontzi taldea. Disko berriarekin burutuko dute proiektua, baina aurretik, kontzertu bira zabala daukate agendan. Agus Barandiaranek, taldeko soinu joleak, egitasmoaren ardatzak aurreratu dizkio Altzaporruri. “Software berri batentzat izan zitekeen izena aukeratu dugu, proiektu honekin ikuspuntu berria ekarri nahi dugulako herri musikaren esparrura”.

Apirilean ekingo diote kontzertu birari eta uda ostean argitaratuko dute lan berria. “Esan liteke Korrontzi zuzeneko taldea dela. Azken urteotan atzerrian jo dugu gehienbat eta oso aberasgarria izan da guretzat; bai herri musikak ezagutzeko garaian, baita musikarekin konpartitu dugunagatik ere”. Orain ere kanpora begira jarrita daudela esan behar, emanaldi gehienak atzerrian izango baitituzte. “Urtea bukatu bitartean, 30en bat kontzertu eskainiko ditugu. Ehunetik 90 atzerrian izango dira: Frantzia, Txekiar Errepublika, Eskoziak, Irlanda, Portugal eta beste hamaika tokitako folk jaialdietan jotzekoak gara”.

Disko berriko kantuak itxuratuta daukate eta, hainbat grabazio, dagoeneko eginda. Baina “Euskal Herrikan kanpora ikasitakoak diskoan nabarmenduko” direnez, udaberrian abiatuko duten emanaldi-bira baliatuko dute hainbat grabaketa egiteko. “Kanpoko artista ospetsu asko arituko dira lan berrian”. Tradition 2.1 egitasmoaren xehetasun guztiak apirilean emango ditu Agus Barandiaranen taldeak.

## Debagoieneko Trikitixa Eguna, eskualdeko azken herrira iritsi da: aurten Elgetan da hitzordua

Debagoieneko Trikitixa Eguna bederatzigarren edizioa du aurten, eta apirilaren 20ko hitzorduarekin, osatuta geratuko da bailarako herri guztietako bira. Elgetan eta Eskoriatzan irakasten aritzen den Adolfo Jainagak azaldu digu, ziklo bat itxiko dela aurtengoarekin. “Debagoienan, Gatzaga ez beste herri guztietan dago trikitixa eskola. Esan beharra da, Soraluez, administratiboki Deba Barrenean egon arren, han ere ospatu genduela Trikitixa Eguna. Eta hala, Elgetakoarekin, herri guztietatik pasa eta ziklo bat itxiko da”.

Arrasaten ospatu zen aurreneko Debagoieneko trikitilarien bilgune izaten den eguna eta, datorren urtean, berriz ere Arrasateri dagokio antolatzea. “Egurdiko ekitaldian Arrasateko eskolari emango diogu sinbolikoki lekukoa”. Ezin da ahaztu gainera, Elgetak baduela esanahi berezia trikitilariarentzat, bertan bizi izan baitzen Jacinto Rivas *Elgeta*. “Aurten bereziki gogoan izango dugu aurreneko maisu izan zena”.

- **11:00** Trikitilariak ongi etorria eman eta ogitartekoak banatuko dizkiete
- **11:30** Kalejirak abiatuko dira herriko kaleetan barrena
- **13:00** Plazan ekitaldia
- **14:30** Bazkaria pilotalekuan
- **17:30** eMePebo5t taldearekin erromeria

## AIARALDEKO II TRIKITI TOPAKETA, martxoaren 24an

Aiaraldean bigarren urtez ospatuko den Trikiti Topaketarako gonbitea ere egin nahi dugu. Okondoko Udalak antolatu du topaketa, herrian XIV. Baserri Azoka ospatzen den egunerako.

### Egitaraua:

- **11.30tan** trikitilariak elkartzea azokaren esparruan eta kalejira
- **12.30tan** bikoteen erakustaldia, norberak aukeratutako bi piezarekin
- **13.30tan** *luncha* parte hartzaileentzat
- **14.30tan** Triki-jaia eta opari-banaketa parte hartzaileentzat

**Oharra:** erakustaldian parte hartzeko, izena eman beharko da. Horretarako fitxa [www.okondokoudala.com](http://www.okondokoudala.com) helbidean, albisteen atalean sartuta aurkituko duzue. Betetakoan, Okondoko Udaleria bidali behar da postaz, fax-ez edo posta elektronikoz Itziar Castresanaren izenean.